

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko abuztuaren 31

Egunkaria

Gehigarri honetan

Izaba • Bostehun lagun inguruk parte hartuko dute bihar Larra-Larraine bizikleta martxan

Javi Azpiroz • «Nekazaritza ekologikoak merkatua zabaldu du»

Argia

hostoen artetik



• OSKAR MONTERO

Heldu den urtetik aurrera, Nafarroan baso ustiapenen zerga araubidea aldatuko da. Orain arteko sistemak baso jabeak gogor kaltetzen zituen, ez baitzuen kontuan hartzen egur lote batekin lorturiko dirua arbolari handitzen kostatu zaion urteen artean zatitu behar dela. Hori dela eta, basoaren merkatua hagitik iluna zen, opakoa ia. Eta basoa ez zen negozio. Aldaketak merkatua argitu eta ordenatuko duela uste du baso jabeen elkarteak.

Zerga kontuen argiak arbolen edertasuna ikusten utziko ote du?

'Agottaneko Andrea' bigarrenez

Inkisidore eta sorginen istorioa berriz antzeztuko dute gaur herriko pilotalekuan

Iragan maiatzan '12 Ordu Eskuaraz' bestaren baitan egin zuten gisara, gaur gaueko hamarretan Agottaneko Andrea antzezlana taularatuko dute ia 200 lagunek, Elizondoko frontoian. Gauak giro berria emanen dio lanari.

HAMABORTZ BAT ANTZEZLEK eta bertze 170 laguntzailerik Baztango sorginen, akelarreen eta inkisidoreen gaineko istorioa kontatuko dute. Agottaneko Andrea antzezlaren gidua Patxi Labordak idatzi zuen, eta horretarako oinarri historikoa hartu zuen.

«Gu normalean saiatzen gara zerbait ere harrapatzen erreala izan dena, pertsonaia bat edo gertaera bat, eta horren inguruan sortzen dugu istorio bat, erreala ez dena», esplikatu du Mari Cruz Goñik, 12 Ordu Eskuaraz elkarreko kideak. «Aurten, egiazko pertsonaia baten inguruan istorio bat asmatu dugu, garai hartan xarmanki gertatu ahal izan zena. Kontua da bazela Pierre de Lancre izeneko inkisidore baxenabartar bat, sorginekin tematua zegoena. Gainera, gorroto izugarria zion euskaldun zen guztiari. Jakin genuen Lapurdin hil zuela jende anitz. Guk egin duguna da iduriz Pierre de Lancre ailegatzeko zela honeraino, eta hemen nahi duena da hil hemengo sorginak. Bada dantza, bada musika, bada denetarik».



la 200 lagunek hartuko dute parte Agottaneko Andrea antzezlaren gaur gaueko emankizunean. Irudietan, maiatzeko emanaldia. ● MENA ARGAZKIAK

Aldaketa bakarra, argia
Maiatzeko eta gaurko antzezpenean artean aldaketa bakarra izanen da; argia. Izan ere, maiatzean egun argiz antzeztu zuten Agottaneko Andrea, Elizondoko Foruen plazan. Gaur, gaueko hamarretan hasiko da emankizuna, herriko pilotalekuan. «Oraingoan, diru aferengatik, ez dugu egiten ahal Elizondoko plazan», komentatu du Goñik. «Zeren gradak alokatzea kostatzen da milioi bat, eta gure aurrekontuak ez du ematen horretarako adina. Eta orduan egin behar dugu Elizon-

doko pilotalekuan. Akaso problema gehiago izanen dugu soinuarekin, frontoi batean ez baita soinua ateratzen batek nahi duen bezala. Baina bertze gainerako guztian dena da berdina». Joan den urtean, maiatzeko antzezlana abuztuan errepikatu zuten. Bi emanaldietan arrakasta handia izan zutela ikusirik, aurten gauza bera egingen dute. Kanpokoez landara, bertakoak ere antzezlana ikustera bilduko direla uste du Goñik, nahiz eta lehenagotik ikusia izan. «Oraingoan gauze egingen



● MENA ARGAZKIAK

dugu, argiekin, eta horrekin irabazten du anitz».

Aktoreak maiatzeko berak dira. «Entseguak egin behar izan ditugu», erran du Goñik. «Oroitzen ziren gauza guztiez, baina ez duzu uzten ahal azken momenturako». Hondarreko entsegua atzo egin zuten. «Gure aktoreak ez dira profesionalak, baina profesionalitate horretan falta zaiena sobratzen zaie bihotza eta ilusionean», gaineratu du Goñik.

Antzezlana ia ordu eta erdi

irauten du. Sarrerak Bertizko eta Elizondoko turismo bulegoetan, Xauli gazte informazio bulegoan eta Iruñeko Xalbador eta Auzolan liburu dendetan daude salgai: aitzinetik erosita 1.000 pezetan eta bertan 1.500 pezetan. Agottaneko Andrea antzezlana 12 Ordu Eskuaraz elkarrekin antolatuta, Elizondoko herriaren, Baztango Udalen eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin.

→ Asier Azpilikueta



● MENA ARGAZKIAK

mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Aspaldi, kazetari suhar eta amateurrek ginenean, eztabaida beroak izaten genituen. Adibide batek adieraz lezake eztabaida haietako baten muina: «Euskal Herri normalizatu batek euskaraz egindako 40 Principales bat behar al du?».

Ez dizut deus aurpegiratu, irakurle. Egin barre sueto. Nik ere egiten dut, baina triste samarra ateratzen zait azken aldi honetan. Izan ere, hainbeste arrazoi al dago algara egiteko? Zuk ez al dituzu entzun, besteak beste, eraiki aditza hitzetik hortzera darabilten harginen iritzia? Nazio bat, diote. Nozio bat? Fede kontua, nonbait. Garai bateko Urkok bezala, badakite zer nahi duen herriak.

Sinetsita daude herri hau erresistentziarako ahalmenak egiten duela diferente. Luzaro eutsiko al dio? Sukal-

Bazka

detik ez urruntzeak lagundu egiten du. Askok «poteo anti-nuklearretan», «autobidearen aurkako hamarretakoe-tan», «presoan aldeko afarietan» aurkitu du lehen lerroan jarraitzeko kementa.

Dena dela, zalantza beti etsai. Erantzun azkarrak bilatzeko zortea duenak egiten du aurrera. Zer nahi/behar dute besteek? Herria hitza baztertu eta jendea hautatu dutenak goitiago iritsi dira: «Zuek nahi duzuen esan, baina guk jendeak eskatzen duena ematen dugu». Buru argiak, erantzun azkarrak.

Eta buru argi horrek erabakitzen du udan freskagarriak behar ditugula, irrikan gaudela festen gaineko gehigarri bat irakurtzeko edo txosna batean aitzurtu den jende jatorren iritzia jakiteko; ziur daude, egunero, eta sei bat al-diz, Euzkitze ikusi nahi dugula Miamiako txuloen moduan

jantzia cabriolet bat gidatzen, ordu txikitik biziki estimatuko dugula arratsaldean emandako dantza txapelketaren errepikapena ikusteko proportzioa, eta egun hauen astuna eraman ahal izateko lagungarri zaizkigula igerileku baten inguruan egindako lehiaketak.

Haiek jakinen dute. Aditu bihurtu dira homologazio kontuetan. Harritu egiten naiz, hala ere. Hain itxura txarra al dugu udan? Hain etsia, hain babesgabea, hain penagarria...? Litekeena da. Jendea gara, azken batean. Las buenas gentes del Pais Vasco. Euskaldun jatorrak. Asmazio polita, jendea.

Bero dago. Ez dut eztabaidatzeko gogorik, eta horrela koetan ohikoa den formula etortzen zait gogora: Amen, zuek hor eta gu hemen. Baina ez dakit zenbat garen gu, eta hemen oso lurralde txikia da.

Izaba •

Larra-Larraine bizikleta martxa

Larra-Larraine Nazioarteko Bizikleta Martxa 8. urtez eginen dute bihar, Izaban. Erronkariko kirol jarduera bultzatzeko antolatu zena, egun, ibarreko eta Euskal Herriko bizikletazaleen topaleku bilakatu da.

500 lagun inguruk parte hartuko dute bihar Izabako Udalak antolatu proban



Bostehun bat lagunek osatuko dute bihar Izabatik abiatuko den tropela. • EGUNKARIA

EUSKAL HERRI OSOKO TXIRRINDUZALEEN bilgune izanen da bihar Izaba, hango Udalak antolatu Larra-Larraine Nazioarteko Bizikleta Martxaren eskutik. Aurten zortzigarreneguz eginen dute, eta antolatzaileek 500 bat lagun biltzea espero dute. Zuberoko Izarbe eta Larraineko gainek proba gogor bilakatzeko dute Izabakoa, baina zaleek gustuko dute. Azken hiru urteetan, gainera, bi ibilbide presatatu dituzte antolatzaileek, martxaren gogortasuna arintzeko asmoz, eta parte-hartzaileek eskertu dute.

Ibilbide luzeenak 143 kilometro ditu, eta, laburrenak, berriz, 118. Lehenengoan parte hartzen duten txirrindulariek Izarbe eta Larraine, biak igo behar dituzte, eta, laburrekoek, berriz, Larraine bakarrik. Ibilbide horrek biltzen du parte-hartzaile gehien. «Ibilbide bakarra zegoenean, proba benetan gogorra zen, eta horregatik erabaki genuen ibilbide laburrago bat egitea, txirrindulari askok ezin zutelako martxa bukatu, edo denbora gehiegi behar zutelako

amaitu ahal izateko», azaldu dute antolatzaileek.

Euskal Herriko ez ezik, Kataluniatik, Frantziatik eta beste hainbat lekutatik etortzen dira urtero Izabara hainbat parte-hartzaile. Bestalde, gaur hitzaldia emanen baitute Euskaltel taldeko hainbat kidek, Izabako Museo Etnografikoan, 20:30ean. Miguel Madariaga arduraduna izanen da, eta, harekin, bi txirrindulari (Euskaltelek oraindik ez du zehaztu nor).

Irteera, goizeko 09:00etan

Bihar goizeko 07:00etatik 08:00etara parte hartzeko izena eman eta dortsalak jasotzeko aukera izanen dute txirrindulariek. Irteera, berriz, 09:00etan izanen da. Ibilbidean hainbat anoa postu jarriko dituzte antolatzaileek, Ernazko gainean, Aretten, Izarben, Erroimendin eta, azkenik, Izabako helmugan.

Martxa amaituta, sariak banatuko dituzte, arratsaldeko

18:00etan. Emakumezkoen artean saria emanen diete ibilbide bakoitzeko irabazleari, eta, gizonzkoen artean, berriz, sari bat kategoriatan eta ibilbide bakoitzeko: 10 eta 40 urte bitartekoak, 40 eta 54 urte bitartekoak eta 55 urtetik goitikoak. Sariak banatzen dituzten arren, txirrindularien arteko harremana eta giro ona bultzatzea da antolatzaileen asmoa.

→ Edurne Elizondo

Tutera • **Nafarroa Oinez 2002rako logotipo lehiaketa**

HELDU DEN URTEKO NAFARROA OINEZ Tuteran eginen dute, Argia ikastolak antolatuta. Jai horretarako logotipo eta lelo proiektuak hurrengo asteko asteleheneetik ortziralera eman beharko dira, Argia ikastolan (Tutera etorbidea, z/g, 31512 Fontellas). Logotipoak xumea eta ezagutzen erraza behar du izan, eta zigiluetan, afixetan, publizitatean, arropan eta bertze hainbat euskarritan erabiltzeko egokia. Egile bakoitzak gehienez ere bi lan aurkezten ahal ditu. Saria 300.000 pezetakoa da (75.000 libera).

Proposamenak Argia ikastolara eman behar dira 09:00etatik 13:00etara.

Proposamena kartazal itxian sartu, eta kanpoaldean zera idatziko da: *Nafarroa Oinez 2002ko logotipo eta lelo lehiaketan parte hartzeko proposamena*. Kartazalaren barnean sartu behar da proposaturikoaren justifikazio memoria, eta leloa zein logotipoa DIN A-4 kartoi mehe batean. Kartoi mehe horren gibelean, izenburu edo izengoitia bat idatzi behar da. Kartazalaren barruan beste kartazal tikiagoa sartu beharko da. Horrek kanpoan izenburua edo izengoitia behar du izan, eta barruan, egilearen datuak.

→ Daniel Urrutia



• JOXE LACALLE

Gaiarre zaharra

Gazteluko plazan lur azpiko aparkalekua eraikitzeko egiten ari diren lanak direla eta, Iruñeko bihotzean zeuden aspaldiko erakinak azaleratzen ari dira. Egunotan Gaiarre antzoki zaharraren aztarna ikusten ahal da, Karlos III.aren etorbidearen bukaeran. Irudian, atondoa (ezkerrean) eta besaulki patioa (eskuinean).

Ingalaterraz haratago

Beti gustatu izan zaizkit ingelesak. Zera, betiko ingelesak esan behar nuke, edo, zehatzago, Julio Verne frantsesak deskribatu zituen haiek: serioak baina umore zorrotzekoak, puntualak eta, oso garritsua, Club bateko kideak. Ez dakit zergatik, baina erakargarria egiten zitzaidan egunerokotasunari omen dioten leialtasun hori ere. Badakizue: Sir X, egunero seietan esnatu, sei eta erdietan gosalduta eta zazpiak laurden gutxitarako etxetik abiatzen da. Lanerako bidean Mrs. Y (loredendakoa), Mr. Z (prentsa saltzailea) eta Mr. B (ofizinetako atezaina) agurtzen ditu hurrenez hurren. Egunero. Orain dela 35 urtetatik egun bakar batez huts egin gabe. Ez dakit nik zergatik (edo zer demontregatik!), baina alukeria honetan zer edo zer ederra ikusten nuen! Bada, kontua da urte eta erdiez lan batean ibili naizela (ofizina batean!, oso ingeles!), eta hasiera batean Julio Vernek deskribatutako ingeles baten antzeko bihurtuko nintzela ematen zuen (dagokion xarmarekin). Egunero zazpitan esnatzen nintzen, egunero taberna berean tabernari berak ebakia prestatua zidan, eta egunero abiatzen nintzen lanera kale beretik. Bidean ez nuen inor agurtzen, egia esan. Baina egunero ikusten nituen gainerako ingelesak: autobusaren geltokira umeak zeramatzenak, CANeko langileak, eta, arrunt inportantea, nire ofizinen ondoan dagoen kafetegian gosaltzen zuten ilehoria. Egunero ikusten nuen emakumea. Egunak joan ahala, gero eta gusturago ikusten nuen prentszalea zela, gustura ere janzteko era atsegina eta askotarikoa zuela (bere arropategia asteetan zehar niretzat husten zuen heinean), gustura adats ilehorian eguzkiaren argia mila bider biderkatzen zenean. Baina biok ginen ingelesak, eta zortzietan puntuan sartzen nintzen ni ofizinan, eta, ordu berean, irakurtzen segitzen zuen nire maiteñoak. Erabaki nuen arte ez nuela zertan 35 urtez egunerokoari atxikia egon behar, ez zuela inongo xarmarik eta, gainera, Ingalaterra baino harantzago zer zegoen ikusteko irrikan nengoela. Lana utzi eta hurrengo eguneko goizeko zortzietan etxeko sukaldean nengoan, lasai asko. Ordu berean, irudimenean oso ongi kokatua, nire ilehoria egunkaria itxi eta kafetegitik bazihoan. Segur aski, ingelesez izaten jarraituko du, luzez. Bejondeiola. •



Xabier Larraburu



●OSKAR MONTERO

Arbolen itzal ederrean

Zerga araubidearen aldaketak baso ustiapenen merkaturak argitu eta ordenatuko du

Nafarroan baso jabe batek batez bertze lau bat hektarea ditu, hamar lur sailetan banatuak. Zatiketa horrek hagitx zaila egiten du basoaren ustiapena. Basoa egun ez da negozio. Etekinak epe motzean izatea eskatzen du gizarteren lastertasunak. Baina zuhaitzek, ematekotan, 50 edo 80 urteren bueltan ematen dute. Eta, hala ere, oraindik badira pazientziadun batzuk kapritxo-edo arbolak paratzen dituztenak.


Bai erran orde ya bat ateratzen zaio zena baitetan Santiago Mitxelorenari. Hamar urtez EBBBetako Kalifornian bizi izan zen. Etxalarrera duela hogeita sei urte itzuli zelarik, laminazio lantegian sartu eta ezkon-tzeaz batera, bere lur sailetan arbolak paratzen hasi zen. Duela sei urte erreiro aurreratu hartu zuen. «Eta ordutik, izan dut aukera gehiago nire kapritxoak gauzak egiteko. Batean erleak direla. Bertzean, berriz, plantazioea». Santiagok 61 urte ditu, eta 20 bat hektarea.

Lehenbizi, insignis pinuak paratu zituen. Gero, haritz amerikarrak. Ondotik, inxtaurrondo eta gaztainondo japoniarrak. Eta akitzeko, Douglas izeiak. Gereziendoren bat ere badu. Lantegian ari zenean, aste hondarrea eta besta egumetan ibiltzen zen zuhaitzetan. «Juntatzen ginen anaiak semeekin, eta mendirat». Orain, ahal duen guzietan aritzen da zuhaitzetan hau eta bertzea egiten. Dela inausketa egitea, dela adar tiki batzuk moztea, dela mendi zatiren bat bakantzea, garbitzea... «Arbolari adarrak kendu behar zaizkio zura ahalik eta leunena ateratzeko. Hori hagitx neketsua da». Neketsua eta arriskutsua. Hamar metrotik goitiko eskailerak behar da.

«Arbolak ematen dio balioa lurrari»

«Ez dugu larunbati, ez gara oporretan inorat joaten», komentatu du Santiagok. «Geure burua behartu dugu. Ez dago hau uzterik. Beti ikusten duzu zer edo zer egin beharra. Nekatu egiten zara, baina gustura. Ez dut ueste txarra egiten dugunik».

Etxalarek bertako 800 bat biztanle ditu. Baina herriko hogeita bostz landa etxeei esker, biztanleen kopuruak goiti egiten du. Turismoak salbatuko du Etxalar, Santiagoren



Gereziendo bat gaztainondoan artean.

●OSKAR MONTERO

aburuz. Arboleak horretan lagun dezakete. «Arbola ederra da, itzala ematen du eta lurrari balorea ematen dio. Hemengo lur sailek ez dute balio deusetarako. Hor ez da inor esparragoa landatzera joan. Zuhaitzak paratu eta hemendik 50 urtera dagoenak balio izanen du».

Santiagok dioenez, Etxalarko mendia gel-ditu da utzia, inork lanik egin gabe. «Lur sail aunitz lehenago gaztainadiak ziren. Tiki denboran gaztainak biltzen aritzen ginen. Baina gero guk emigratu genuen eta gelditu ziren abandonatuta. Zahartu ziren, berririk ez zuen inork paratu. Bertetik, Etxalarren eta inguruan zeuden ohituta egurra egiterat, ikatza egiteko. Zuhaitzak hiru bat metro zituenean egiten zen moztu. Horrela, adar finak ateratzen zituen, ikatza egiteko egokiak. Urteetan egin zen hori. Baina duela 50 bat urtetik honat, harrikatza sartu da eta egur-ikatza akitu egin da. Eta arbolak gelditu dira hortan, itsuski, ez aitzinerat ez ez gibelerat».

Bilobetzako etekina

Etxeko lur sailetan haritz zaharrak zituzten Mitxelorenarrek. Bota eta bertze zuhaitz batzuk paratu zituzten duela hogeita sei urte. Aurteno neguan, Santiagok bota egin ditu orduan landaturiko gaztainondo japoniarrak. «Neronek landatutako arbolak bota ditudala erraten ahal dut», nabarmendu du Santiagok. «Baina ez ditut moztuko gehiago. Gutienik behar dute 50 urtetik goiti. Semeek egin beharko dute, edo, ipartar batek erran zidan bezala, bilobek».

Herentziak iritsi zaizkio Santiagori lur sail gehienak. «Duela 260 urteko eskriturak baditugu, aurrekoek gorde zituzten. Nire betebeharra da horiek gordetzea eta ondorengoek uestea. Ni gauza naizen bitartean egiten dut

ahal dudana. Eta semeek hor izanen dituzte zuhaitzak nahi dutena egiteko».

Etxalarren badira bertze sei bat lagun arbolak paratzen dituztenak. «Arras guti dira, gehiago nahi genituzke». Akaso, jendea ez da zuhaitzak landatzera ausartzen irabazirik ematen ez duelako. «Hau ez da negozioa», dio Santiagok. «Nik hobbygatik egiten dut, kapritxo da».

Santiagori nabaritzen zaio interesa duela. «Aunitz ikastaro egin ditut, baina, hala ere, ikusten dut hagitx guti dakidala. Erranen nuke Sokratesek bezala: 'Bakarrik zakiat ez dakidala'. Praktikarekin ikasten duzu beti pixka bat». Basoen ustiapeneko zerga araubidearen aldaketa ez du buruan Santiagok. Ondean duen zuhaitzari adarra ongi moztu ote dion, huraxe du gogoan. Esku zerra hartu, eta ris ras.

➔ Asier Azpilikueta



Haritz amerikar MONTERO

Baso jabeen elkarte

NAFARROAKO BASO JABEEN ELKARTEA, FORESNA-ZURGAIA, 1992ko EKAINEAN SORTU zen. Egun 450 bat bazkide ditu (400 partikular eta 50 udal). «Europan ez da bazkide eta jabe pribatuak biltzen dituen bertze elkarterik», zehaztu du elkartereko gerente Manu Arrastiak.

Nafarroako Gobernuako departamenturik zaharrena mendiakoa da. Arrastaren aburuz, sail horrek dena menderatzen zuen «paternalismoa» ekarri zuen. «Edozer gauza egiteko, baimena eskatu behar zenuen. Gainera, geroz eta langile gutiago du departamentuak, eta daudenak, geroz eta zaharragoak dira. Ez dira leku guzietara iristen. Baso jabeak babesik gabe sentitzen ziren Administrazioaren aitzinean, eta udal anitzek ueste zuen baso ustiaketa ez zela ohera ona». Hori zela-eta sortu zen Nafarroako baso jabeen elkarte, Foresna-Zurgaia. Aurten, «berbiziko ahalegina» egin eta gero, elkarreak hitzarmena sinatu du azkenean Nafarroako Gobernuarekin. Hitzarmen horrek sektorea sustatzea eta garatzea du helburu, heziketari, jabeen laguntza teknikoari eta dibulgazioari dagokienez.

Zerga araubidearen aldaketa

NAFARROAKO BASO JABEEK JAKIN BEHARRREKO gauza da beren jardueraren zerga sistema aldatu egin dela. Foresna - Zurgaia elkartereko abokatu Luis Enrique Lopezek adibide argigarria eman du aldaketaren nondik norakoak esplikatzeko. Horretarako, demagun baso jabe batek milioi bat pezeta lortu duela pago egur sorta bat saltzeagatik.

Zuzeneko zentzuzko (sistema zaharra)

Zerga araubide zaharrena arabera, egurraren saltzarekin lorturiko milioi hori ezohiko etekina da. Gastuak kendu eta gero, %30eko murriztapena egiten zaio, bi urte baino gehiagotan lorturiko etekina delako. Baina pagoen jabeak egurra 60-80 urteen ostean moztu duenez, gehienetan ezinezkoa izaten da urte horietan guzietan egin dituen gastuen zentzuzko justifikatzea. Horregatik, milioi horri zuzeneko egiten zaio %30eko murrizketa, gastuen kenketa egin gabe. Horrela, bada, baso jabeak 700.000 pezeta eramane beharko du errenta aitortpenaren zerga oinarriara.

Zentzespen objektiboa (sistema berria)

Zerga araubide berriaren arabera, zentzuzko arras ezberdinak dira. Lehen bezala, jabeak milioi bat pezeta eskuratu du pagoengatik. Pagoa 30 urtetik goitiko txanda aldaketa behar duen espeziea denez, milioi horri %0,115eko indize zuzentzailea aplikatzen zaio (emaitza: 115.000). Pagoen ustiapena Administrazioak onarturiko forestazio plan baten arabera bada, aurreko emaitzari %0,80ko indize zuzentzailea aplikatzen zaio (emaitza: 92.000). Eta etekina bi urte baino gehiagotan lortu denez, %30 murrizten zaio (emaitza: 64.400).

Hortaz, pago lote batekin milioi

bat pezeta (40.000 libera) lortu duen jabeak sistema zaharrenekin 700.000 pezeta (28.000 libera) eramane beharko litzuke errenta aitortpenaren zerga oinarriari; aldiz, sistema berriarekin, 64.400 pezeta eramane litzuke (2.576 libera).

Noski, honek guziak xehetasun gehiago ditu, baina, funtsean, sistema zaharrena eta berriaren arteko

argitzen lagunduko du», erran du abokatuak.

Elkartereko gerente Manu Arrastiak, berriz, «anakronikoa» eta «ilogikoa» hitzak erabili ditu sistema zaharra definitzeko tenorean. «Irabazien %70 errenta aitortpenaren zerga oinarriara joaten zenez, baso sektorea beltza zen, ikatza bezain iluna», aipatu du Arrastiak. «Zerga araubidea

●OSKAR MONTERO



Santiago Mitxelorenari

ETXALARKO BASO JABEA

«Arbola ederra da, itzala ematen du eta lurrari balorea ematen dio. Hemengo lursailek ez dute balio deustarako. Hor ez da inor esparragoa landatzera joan. Zuhaitzak paratu eta hemendik 50 urtera dagoenak balio izanen du»

aldea azaldurikoa da. Informazio zehatzagoa nahi duenak hobereza du Foresna - Zurgaia elkartera jotzea.

Merkatu beltza

Lopez abokatuak komentatu duenez, sistema zaharra «astakeria» zen. Izan ere, milioi pezeta hori ezohiko etekin bezala hartzen zen, kontuan izan gabe milioi lortzeko 60-80 urte pasatu behar izan direla. «Sistema berria zuzenagoa da, eta merkaturak

irrazionala zen, jabearen kontra joaten zen, eta, jendeak bizi behar duenez, ez zuen egurrarekin irabazitakoa deklaritzen. Normala. Eta horregatik, guk ezin genuen egurraren katalogo bat egin, horrek erakutsiko lukeelako zenbat duen jabe bakoitzak eta, segituan, Nafarroako Gobernuak Ogasun saila etorriko litzateke jabeen bilak». Ez dago sektoreari buruzko batera daturik; Arrastiak berak zalantzan jartzen du «sektore» hitza erabiltzearen zuzentasuna.

«Hemendik aurrera, zerga araubide berriarekin, jendeak erosten eta saltzen duena deklaratu du», adierazi du Arrastiak itxaropentsu. «Sektorea ordenatuko zaigu».

Heldu den urterako

Hasiara batean, martxoaren 22ko 70/2001 Foru Aginduak, araubide berria ezartzen duenak, 2000 urteko errenta aitortpenarekin hasi behar zuen. Baina Foresna - Zurgaia elkartereok aldaketa zeterrela ikusi zutenean, Nafarroako Gobernuari eskatu zitoten urtebetez atzeratzeko. «Aurten ez dute kontrol zorrotziki egin», abiatu du Arrastiak. «Eta horren truke guk dibulgazio lana egin behar dugu, baso jabeek ez baitakite asko zerga kontuei buruz. Guk esplikatuko diegu gauzak behar bezala egiten, heldu den urtean deklaritzen hasteko».



Ezkerrean, baso ustiategi aldatzera mendiaren Goian pinu bat.


●OSKAR MONTERO

Tonto aurpegia

Betikoak. Eguneroko keinuek zizelkatzen dute musua, itsasoko olatuek harkaitzak bezala —ez dut pentsatu ere egin nahi zer nolako imintzioak egiten dituen **Rafael Gurreak** duen begitar-tea edukitzeko—. Gauzak horrela, aztoraturik nabil, etorkizunean tonto aurpegia izan dezakedalako.

Iruñean ez bezala, Zarautzen Diario de Navarra erosten dut egunero-egunero. Batetik, foru hiriburutik ehun bat kilometrorra egonda, ezin dudalako Monte Carlo tabernan irakurri. Bestetik, hondartzan zabal-zabal edukitzea gustatzen zaidalako, zarautzarrek argi eduki dezaten nortzuek osatzen dugun haien ekonomiaren oinarri nagusia, nafarrok ordaintzen dugula —esaterako— familia zarautzar bat urte osoz sustengatzeko aski den gure 50 metro koadro eskaseko apartamentuaren abuztuko alokairu neurritz kanpoko.

Hartara, azken asteotan egunero-egunero Gazteluko plazaren auziaren inguruko hiruzpalau eskutitz irakurri ditut Cordovillako egunkariko Zuzendariari atalean, guztiak, jakina, **Yolanda Barcinaren** aldekoak, eta, ezinbestean, iruindarron egongelaren aldeko hiritar plataformaren aurkakoak. Barcinazaleen idazkiok errepikakor samarrak izaten dira, errepikakor samarrak izaten direnez. Aparkalekuaren aurkakoak betikoak direla da argudiorik errepikatuena, erregionalisten arrazoen hit berezian arrakastatsuen, **Joxeina Etxeberriaren** naftalina usaindun hizkera erabiliz —portzierto, zergatik egungo burusoil



Pablo Antoñana, betiko iruinsema.

guztiak burua zuzitzen dute disimulatze-ko? Ez al da geratzen zaion ilea zertxobait hazten utziz «burusoila naiz eta harro nago» aldarrikatuko duen behar bezalako gonadadun soildutakorik? Sexista al da horrelako esaldia idaztea baldin eta gonada hitz neutroa erabiltzen bada?—.

Betiko bat. Betikoak horrek, jakina, plataformako kideak ETaren inguru po-



Lur azpiko aparkalekua, Gazteluko plazan.

litikosozialfolklorikogastro-nomikoko kide direla esan nahi du, **Julio Martinez Torres** jaunari posta igortzen diotenen lumarik gordinenek behin baino gehiagotan gutxi gorabehera hitzez hitz zehaztu dutenez. Gauzak horrela, eskutitzotan betikoak irakurtzen dudak bakoitzean, duela zenbait hilabete prentsan azaldu argazkia etortzen zait burura: Gazteluko plazako kioskoa eta haren pean lur azpiko aparkalekuari buruzko erreferendumen aurkako iruinsema-alaba ezagun sorta, besteak beste, **Pablo Antoñana** idazle handia, **Pili Yoldi** kazetari zorrotza, **Diez de Ure** erretiratu kementsua

eta **Silvia Baleztena** lanbide ezagunik gabeko nostalgiko porrokatua.

Jarraian, baleztenatarra Sarasate pasealekuko haien etxeke egongelan irudikatzen dut, larruzko sofa baten gainean, armiarma-lanpara baten pean, irakurtzeko betaurrekoak sudur puntan, Diario de Navarra esku artean, eta inplizituki bera betiko horietako bat dela dioen eskutitza irakurtzen. Eta hori irudikatzen dudak aldi oro, irribarre inozoa ezpaineratzen zait. Arestian azaldu bezala, aztoraturik nabil, Diario de Navarra-k Barcinaren aldeko eskutitz kanpainari luze eusten badio, urte batzuk barru gertu dugun errege etxe bateko kideen bisaia izanen dudalako.



panpilonia zirkus

Pello Argiñarena

Graffiti city

San Agustin parrokiako ataria. Argako zubipeak. Villavesaren markesinak. Gazteluko plazako aparkalekuko hesi metalikoak. Unibertsitate Publikoko pasabideak. Renfeko tren geltokia. Sadar futbol zelaiko harmailak. Donibane piszinako harresiak. Yamaguchi parkeko zutabeak. Antoniutti-ko patinete pista. Alde Zaharreko tabernetako komunak. Hiriaren grisa, kolore biziz tindaturik azaltzen zaigu makina bat bazterretan.

Italierako graffiare adierak paretan zirriborratzea esan nahi du. Hala ere, benetako jatorria urrunago dago. Xabier Nesh Angos graffiti egilearen hitzetan, «70eko hamarkadaren amaieran, New Yorkeko Bronx auzoan sortu zen graffiti. Iruñean, berriz, irudi mota hau duela hamar bat urte hasi zen azaltzen».

Ausardia, lotsagabekeria, lehia eta batebategotasuna ezaugarri nagusizat dituen

Hip-hop kultur mugimenduaren adierazpen estetikoak da graffitiak. «Rap musika estiloa, irratikasat erraldoia bizkarrean hartuta karraketan jira eta biraka gazte koadri- lek dantzatzen duten break dance-a eta graffitiak, hirurak bat dira».

Eraikinen diseinu karratua eta hiriaren banaketa zuzena hautsi egiten ditu arte estilo horrek. Nesh graffitilariak dioenez, «deformazioa da gure irudien oinarria. Itxura berezia eman nahi diogu inguruari, forma okerren bidez errealitatea desitxuratu. Fantasia eta errealitatea uztartzen ditugu».

Bestalde, irudiak eta letrak nahasten dituzte beren lanetan. Irudiak letra eta letrak irudi bihurtuz. «Graffitiak bi eratakoak izan daitezke. Zenbaitetan gizakion edo



Graffitiak Donibane igerilekuko hesietan.

gauzen ilustrazioak, baina gehienetan graffiti egilearen sinadura huts-hutsean».

Zerrenda amaigabea osatzen dute Iruñean margolan berezi horien jabeek. Brian, Dino, Fat, Mome, Metal, Ese, Holy, Conse, Wanker, Chaos, Sae, Soker, Fa-de...


Graffiten bilakaerari dagokionez, Xabier Angosek uste du aldaketa handiak

egon direla azken urteotan. «Hasieran, irudi sinpleak pintatzen ziren. Gero, forma okerren aldeko wild-style joera nabarmendu zen. Orain, model pastel estilo tridimensionalak da nagusi».

Sorrerako salaketa kutsu hura ere galdu dute hiriko ilustrazio horiek. «Aldarrikapen mezuak baino gehiago, formak eta itxurak du garrantzia. Alde batera utzi dira lelo politiko eta sozialak».

Jada, graffitiak egiteko pintura plastikoa ere bazterturik dago. Hormetan margotzeko espraiak

eta irudi txikiak egiteko errotuladoreak erabiltzen dituzte artista horiek. «Espraiarekin batera, imajinazioa, esku trebeak eta hanka arinak beharrezkoak dira». Izan ere, Nesh marrazkilariak salatu duenez, «legeak ez du onartzen arte mota hau. Hori dela kausa, sarritan jasotzen ditugu poliziaren isunak». Ez du zentimo bat ere ordaindu oraindik, noski.

Javi Azpiroz  BASABURUKO GARAPEN BATZORDEKO BURUA

«Nekazaritza ekologikoak merkatua zabaldu du»

Basaburuko Garapen Batzordeko buru da Javier Azpiroz, eta igandeko ekitaldiak antolatzen ibili den lagunetako bat. Nekazaritza ekologikoak ibarreko merkatua zabaldu dela azpimarratu du, eta Basaburuan arazoak ez direla gutxi gai-

arazoa, lanbidea, inguruko zerbitzuak... Nekazaritza eta abeltzaintzaren alorrean ere zaila da ustiapenei eustea, gazteek ez baitute lan hori egin nahi. 800 bat biztanle dira bakarrik ibarrean, hamabi herritan banatuak. Nekazaritza ekologikoa izan dai-

Nekazaritza ekologikoaren eta kontsumo berdearen eguna ospatuko dute Basaburuko biztanleek, igandean, Jauntsaratsen. Ibarreko Garapen Batzordeak uste du nekazaritza mota hori dela ustiapen tradizionalei eusteko bidea, eta bultzatu nahi dute, herritarrei horren berri emanez.

egitaraua

I. Nekazaritza Ekologikoaren Eguna eta Kontsumo Berdearen Erakustaldia

Ostiralean

19:00. Medikuntza biologikoan doktore Elena Corralesek elikaduraren eta etiketatzearen inguruko hitzaldia emanen du.

Larunbatean

19:00. Bioeraikuntzari buruz hitzaldia emanen du Juan Luis Herrero adituak.

Igandean

09:30. Hasiara ekitaldia.

10:00. Nekazaritza ekologikoaren feriaren hasiera.

11:30-12:30. Sagar, sagardo eta zuku ekologikoak egiten dituen


Berueteko ustiapen lekura bisita.

13:00-14:00. Abeltzaintza ekologikoko etxe batera bisita, Orokietan.

14:00. Hainbat sariren zozketa.

14:30. Elikagai ekologikoekin egindako bazkaria.

Egun osoan haurrentzako lantegiak izanen dira: birziklatutako produktuen bidez jostailuak egiteko, maskarak egiten ikasteko... Horretaz gain, erakusketak, kale animazioa, hainbat produktu ekologikoren dastatzea eta herriko hariztira bisitak izanen dira.



neratu. Haietako bat, gero eta jende gutxiago bizi dela han.

■ **Zuek, Basaburuko Garapen Batzordeko kideok, noiz hasi zineten lanean?**

Duela sei bat urte. Gero gure jarduera eten egin zen, eta duela urte eta erdi inguru berriro hasi ginen lanean. Batzordean Udaleko alderdi guztietako ordezkariak daude, eta, haiekin batera, hainbat sektoretako ordezkariak eta zonaldeko garapenerako eragile bat. Gure lan nagusia da sektoreka aztertzea ibarraren egoera zein den, eta, ondoren, dauden arazoei aurre egiteko proposamenak egitea, Udalak aurrera eramanez.

■ **Zuen azterketaren arabera, zeintzuk dira Basaburuko arazo nagusiak?**

Batez ere, gazteak hemen gelditzeke zer egin dezakegun asmatzea da gure kezka. Ez da erraza, gauza asko hartu behar direlako kontuan: etxebizitzaren

teke gure ibarrak aurrera egiteko bide bat.

■ **Zein helburrarekin antolatu duzue nekazaritza ekologikoaren egun hau?**

Bi asmo nagusi ditugu: bate-tik, ibarreko jendeari nekazaritza ekologikoaren berri eman eta haren abantailez ohartarazi, eta, bestetik, Basaburua hemendik kanpo ezagutzera eman. Jendeak gure berri izan dezan lortu nahi dugu.

■ **Asmoa, beraz, Basaburuko laborariak nekazaritza ekologikoan barneratzea?**

Basaburuan Garapen Batzorde bat osatu dugu, eta hor aztertzen dugu sektore bakoitza nola dagoen ibarrean. Nekazaritza ikertu genuenean, konturatu ginen ustiapen tradizionalei behera heldu zirela. Kontua zen hemengo ustiapen tradizionalei eustea, eta ikusi genuen nekaza-

ritza ekologikoa irtenbide egokia izan zitekeela ustiapen txikiak ez desagertzeko.

■ **Zein neurritan hedatu da orain arte nekazaritza ekologikoa Basaburuan?**

Egun, nekazaritza ekologikoa egiten duten sei ekoizle daude; Basaburua bezalako ibar baten zatitza kopuru ona da. Sagarrekin egiten dute lan haietako hiruzpalautan, bada beste bat marmelada egiten duena eta beste batean ahabiak dituzte. Ikusten da nekazaritza ekologikoaren bidez ere zabaltzen dela azken boladan nahiko murriztua zegoen merkatua. Hemen esnea edo haragia saltzen zen lehen.

■ **Ekoizle horiek parte hartuko dute nekazaritza ekologikoaren egunean?**

«Gazteak ibarrean gelditzeko zer egin asmatzea da gure kezka, gauza asko hartu behar baitira kontuan: etxebizitza, lanbidea, zerbitzuak...»

Bai, ibarreko produktu ekologiko guztiak erakutsiko ditugu; dena hoga bat postu izanen ditugu. Kontua da erakustea era askotako produktu ekologikoak aurki daitezkeela egun merkatuan: haragia, ogia, marmelada, sagardoa, sendabelarrak eta abar. Argi dago nekazaritza ekologikoaren sektorea zabaltzen ari dela Nafarroan.

■ **Elikaduraren inguruko eskandaluek lagundu dute produktu ekologikoak gehiago saltzen?**

Argi dago eragina izan dutela, baina, horretaz gain, Nafarroako Gobernuak ere zabaldu du diru laguntzak jasotzeko bide bat nekazaritza ekologikoa bultzatzeko asmoz. Merkatua zabaltzen ari da, eta oraindik asko handituko dela uste dut. Arazoa da oraindik produktu ekologikoak merkaturatzea ez dela erraza. Halako sare bat beharko genuke, ongi funtzionatzen duena, profesionala. Hori landu beharko da orain. Orain arte ekoizleak arduratu izan dira lan horretaz.

→ Edurne Elizondo





Barcinaren
hurren go
Prentsaurrekoaren
EXKLUSIBA!!



Nafar Kronika

Martxelo Sotes

Bartzinari Riau!

Aipatu ohi da herri bakoitzak merezi dituen agintariak dituela. Baina hori esatea ez da da gehiegitxo?

Hiri honetako burgo-sekoa da, neska, UPNko aurpegi polita (zieten batzuek; ez askok), botikaria, eta Bizkaiko herri proletario batean hazi zen espainiar militar baten alaba. Eta Opusetik gertu egon arren Unibertsitate Publikoan sartu zutena. Berehala Ingurumen sailburu izendatu zuten, eta lau urteren buruan, Iruñeko alkate. Sanferminetako xanpain aparrak ez du ibilbide azkarragoa egiten. Baina aparra beti apar, halako batean pluf egin eta behera doa.

Gazteluko plazako parkingaren kontrako plataformakoek deitutako riau-riaua mani-festa izan zen, eta hauek dira min gehien ematen dutenak. Gainera, biharamunean edukiontzia kiskalirik agertu ez zenez, amorrutaren izanaren ziren guztiok dakigun batzuk.

Gauza bakarra eskatzen zuten: erreferenduma. Suitzako kantoietan astero egiten dituzten horien parekoak. Edo Atarrabian aspaldian egin zutena urrunera joan gabe: erreferendum bitartez, ikurrina Atarrabiako bandera ofizialeko bat zela erabaki zuten. Eta hortxe daukazu, Atarrabiatik pasatu diren UPNko alkate guztiak udal-aurrekontuetan milako batzuk ikurrina josten duenarentzat gordetzen. Baina Iruñean ezin da halakorik gertatu. Erreferenduma? Mesedez! Eta ikurrina kontuekin gutxiago. Banpiroak baratxuriak uxatzen diren bezalaxe, udal dantzariak ikurrina ateratzen dutenean, arrapaladan ateratzen da alkatea. Alkate-repelex! Bartzinaren arrastorik ere ez!

Eta Baionara doan bakoitzean beste horrenbeste. Izan ere, ikurrina, festetan bederen, udal balkoian zintzilik egon ohi da. Eta noski, Iholanda han, udal balkoian repoker aurpegiarekin... Iaz, Doña Iholandak Grenetian esan zion ez zuela ikurrinik nahi, aurreantzean halakorik gertatuz gero, ez hirien arteko anaitasuna, arrebatasuna, ahizpatasuna eta ez kristo! Kontua da Baionako alkateari ikurrina kentzea ahaztu egin zitzaioela eta Leidi Bartzina ez dela Baionara joan. Riau!

Bai Iholanda, riau egin dizute zure haginpean daudenean. Bai, haginpean, hatxez. Eta ez behin, bai-zik eta askotan; beraz, riau-riau!

Nonbait depreak jota omen dagoela kontatu ditate. Ez dut sinisten; nire ustez, emakume honek Margaret Thatcherren ezizena eta ilea bezain gogorra du bihotza. Izatekotan, diot.

gure aukerak

MUSIKA

- **Iruñea:** El Color de la Duda taldeak Media Luna tabernan joko du gaur, 22:30ean.
- **Arroitz:** Flitter, Los Roslis eta Daniel el Higienico taldeek plazan joko dute gaur, 23:00etan.
- **Badostain:** Barricada eta Peta-Z taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, 23:00etan.
- **Arriaz:** Gozategi taldeak plazan joko du igandean.

ANTZERKIA

- **Tafalla:** Kontalariak taldeak *Cuentos y leyendas de Navarra* lana eskainiko du gaur, 21:30ean, Santa Maria eliz atarian.
- **Eitzaburu:** Teatro Bajo la Arena taldeak *Miraria hirian* antzezlanaren taularatuko du gaur, 22:00etan, plazan.
- **Mutiloabeiti:** Kataluniako La Familia Ramirez y Boni taldeak *Tres mejor que dos* kale antzezlanaren eskainiko du bihar, 20:00etan, Mutiloa plazan.
- **Saldias:** *Miraria hirian* antzezlanaren eskainiko dute bihar, 22:00etan, frontoian.
- **Bidankoze:** Bihar txotxongilo taldeak *Kli, kla, birzikla!* izeneko antzezlanaren eskainiko du igandean, 18:00etan, udaletxe ondoko plazan.

ERAKUSKETAK

- **Elizondo:** Ana Marin margolariaren *Nire txokotik oroitzapenak (1953-1997)* erakusketa Arizkunenea kultur etxean ikusten ahal da igandea arte, 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 21:00etara.
- **Izaba:** Peio Azketaren margolanak igandea arte izanen dira museo etnografikoan, egunero 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 21:00etara.
- **Elizondo:** Tomas Sobrinok igandea arte dituen ikusgai bere margolanak Jaime Urrutia karrika-

ko aretoan, egunero 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 21:00etara.

- **Zizur Nagusia:** Jaietako kartelen lehiaketako lanak irailaren 16a arte ikusten ahal dira kultur etxean, lanegunetan 19:00etatik 21:00etara eta jai-egunetan 12:00etatik 14:00etara.

IKASTAROAK

- **Iruñea:** Gazteriaren Etxeko irailako ikastaroetan izena emateko aukera dute oraindik 14 eta 30 urte bitartekoek: areto dan-

tzak, dantza latinoak, euskal dantzak, pintura, argazkilaritza eta ingurumena. Izen ematea eta informazioa Gazteriaren Etxean (Zangoza, 30) edo 948-233512 telefonoan.

LEHIAKETAK

- **Iruñea:** San Fermin Txikito iragartzeko kartel lehiaketarako nahi adina lan aurkezten ahal dira astelehena arte Alde Zaharreko auzo elkartean.
- **Iruñea:** Iruñeko Udalaren Egile Berrientzako XVI. Literatur Lehiaketarako lanak urria-

ren 31 baino lehen aurkeztu behar dira. Lehiaketak lau sail ditu: olerkia, narrazio laburra, bertso-paperak eta komikia. Argibideak, 948-222008 telefonoan edo cultura@ayto-pamplona.es helbide elektronikoa.

BESTELAKOAK

- **Erriberri:** Ardo-dastatze ikastaroa egingen dute gaur Nafarroako Ardo Kofradian (Kale Nagusia, 4), 20:00etan. Tokia hartzeko, 948-210347 telefonoan.

• JOXE LACALLE



'Rabiosa'

Martzillan aitzurrari 'rabiosa' erraten diote, lanabes hori hartzeak amorruta ematen duelako. Horregatik, ahalik eta urrutien jaurtitzen dute. Astelehenean hamabosgarren aldiz egin zuten aitzur jaurtiketako lehiaketa. Sona handiko txapelketa da Martzillakoa, eta 70 parte-hartzaile inguru izaten ditu. Aurten Javier Martinez faltzestarra izan zen 'rabiosa' amorrutik urrutien jaurtiki zuena. Kilo eta erdiko aitzurra 33,53 metrora bidali zuen. Argi dago Martinezek ez duela askorik maite aitzurra. Bai, ordea, irudiko mutikoak. Ez zuen txapelketan izenik eman, baina han izan zen, Martzillako gazteluko lubakian. Aitzurra hartu eta... uff!... 0,37 metro. Ez da guti gero! Hemendik dozena bat urtera 37,60 metroko munduko errekorra berdindu baitz.